

ATLETISMOA. Iazko Munduko Txapelketan dominaren bat lortutako lau atleta ariko dira

Afrikako kolorez jantziko dira gaur Jauregibarriako zelaiak, Zornotzan

John Yuda eta Luke Kipkosegi munduko txapelkunordeak dira irabazteko favorito nagusiak

Mikel Polo | **ZORNOTZA**

Euskal Herrian atletismoa maitate duen orok badaki krosaz zuzenean gozatzeko hainbat aukera eder eskaintzen dizkigun sasoi sartuta gaudela betebetea, eta horren eredu bikaina dugu gaur Zornotzako Jauregibarriako zelaietan ospatuko den nazioarteko txapelketa.

Ikuskizuna 11:00etan hasiko da gazteekin, junior mailako neskekin alegia. Antolatzaileek prestatutako ibilbideari bi itzuli eman beharko dizkiote horiek, guztira lau kilometro eta 700 metro betetzeko. Ondoren, adin bereko mutilen txanda helduko da, eta horiek bi kilometro gehiago egin beharko dituzte.

12:00 aldera emango zaio hasiera eguneko lehen proba handiari; emakumezkoen senior lasterketari, hain zuzen ere. Sarreran izango dira besteak beste, Colleen de Reuck, iazko Munduko Kros Txapelketan hirugarren sailkatua, Eyrusalem Kuma eta Teyiba Erkesso etiopiarrek edo Jackline Maranga eta Jane Omoro kenyarrak. Hauekin batera ez dira faltako Maria Luisa Larraga, Espainiako kros txapelduna, Rocio Rios, atletismoko hainbat probatan Espainiako txapeldun sailkatua, eta nola ez, Amaia Piedra, iazko Euskadiko kros txapelketako irabazlea.

Gizonezkoen lasterketan, sekulako izenak aurkitu ditzakegu zerrendan: John Yuda tanzaniarra, iazko munduko kros luzeko txapeldunordea; Fabian Joseph, hau ere tanzaniarra eta seigarren iazko munduko kros txapelketan; Patrick Ivuti kenyarra ere beti munduko onenen aurrean sailkatu izan da azken urteotan, eta Luke Kipkosgei,



TXEMA FERNANDEZ / EFE
Patrick Ivuti (8) eta John Yuda (2), Laudioko Sari Nagusian aritu zirenean. Zornotzan ariko dira gaur.

berriz, iazko munduko kros laburreko txapeldunordea dugu. Norengatik egin apustu? Ez da inolaz ere erraza. Gainera, ez da horiekin parte-hartzaileen zerrenda bukatzen. Beste zenbait afrikarren itzalpean aurkituko ditugu Julio Rey, bi aldiz Espainiako kros txapelduna izandakoa, Jose Manuel Garcia eta Carlos Adan, Espainiako txapelketa bana irabazitakoak, eta azken sei urteetan bost alditan Euskadiko txapeldun izan den Ivan Sanchez.

Juanjo Anderrez krosaren antolatzaileetako batek EGUNKARIARI azaldu dionez, korrikalari bakoitzak egun daukan sasoi puntua ongi ezagutzea ezinbestekoa gerta daiteke garailea nor izan daitekeen asmatzeko. Anderrezek, bere hiru favoritoen izenak eman ondoren, dei bat egin nahi izan die Zornotza-

ko herritarrei nahiz inguruko kirolzaleei: «Joan daitezela Jauregibarriako zelaietara, ez baita inolaz ere gauza bera korrikalari horiek etxean telebistatik ikustea, edo bertatik bertara zure begien aurrean ziztu bizian nola igarotzen diren ikustea. Ikaragarria da benetan».

Izan ere, Juanjo Anderrezek tristuraz aitortu du urteak igaro ahala, kirol honek gero eta zale gutxiago duela, «orain jendeak halako probak telebistatik jarraitzen baititu». Juanjori urrun gelditzen zaizkio ez oso aspaldi Lasarteko krosetan biltzen ziren 20.000 ikusleak, eta ildo honetatik jarraituz, azken urteetan Zornotzako antolatzaileen artean boluntario kopurua ere jaitsi egin dela jakinarazi digu.

Zornotzako Nazioarteko Krosak, ordea, ez du behera

egin kalitateari dagokionez, eta eguraldiak eta jendeak ongi erantzun dezatela eskatu besterik ez dago, 43. edizioan korrikalari horiek eskainiko duten ikuskizun paregabea giro bikainean murgilduta igaro dadin. Hala izan bedi.

Uliako Krosa jokatuko da bihar

Donostiako Zurriola pasealekuan du Errege Eguneko urteroko hitzordua Uliako Gimnastikaren Krosak, bihar (12:00). Afrikarrak dira han ere favorito. Besteen gaitetik nabarmentzekoak, San Silvestre egunean hurrenez hurren Beasainen eta Gasteizen irabazitako Hicham Chatt marokoarra eta Sammy Tum kenyarra. Emakumezkoetan, berriz, Margaret Irro Beasainen irabazi zuen afrikarri aurre egin beharko diote euskal atletek.

SASKIBALOIA

Zaila izan arren, Tauk garaipena ezinbestekoa du Kopari begira ez sufritzeko

Jon Rejado | **GASTEIZ**

Unicajaren kontrako norgehiagoka egun bat atzeratu arren, Tau Baskoniak egoera larrian hartuko du gaurko partida. Ivanovic ez ditu beste jokalaririk bere agindupean nahi, eta jokatuko dutenak ez daude sasoi onenean. Dena den, eta partida hartzen duten moduan hartzen dutela, ezinbestekoa du Gasteizko taldeak garaipena lortzea, Koparako sailkapena ziurtatzeko. Gainera, zerrendaburu izateko garaipena ezinbestekoa da.

Baina garaipena inoiz baino zailagoa izango dute arabarrek, aurrean ACB Ligako talde handienetako bat izango baitute: Unicaja. Maljkovicen taldeak dagoeneko behin hartu du onpean Tau Baskonia, Euroligan, eta bigarren egiten saiatuko dira, ACBko Finalean gertatutakoa ahazten saiatzeko.

Dena den, egoera larrietan meritu handiko garaipenak lortu ditu Baskoniak, eta gaurkoan errepikatzea ezinbestekoa dute.

Tau Baskonia-Unicaja

Txapelketa: ACB Ligako

hamabosgarren jardunaldia.

Sailkapena: Tau Baskonia 6. (8 irabazi-6 galdu); Unicaja 3. (10 irabazi-4 galdu).

Tau Baskonia: J. Allen, J. M. Calderon, E. Hernandez, L. Foirest, L. Palladino, A. Nocioni, T. Gadou, B. Phillips, R. Griffith edo L. Sims.

Unicaja: Okulaja, Berni Rodriguez, Risacher, Esteller, Fran Vazquez, Kornegay, Cabezas, Bullock, Wojcik, Weis, Sonko, Gurovic.

Lekua: Fernando Buesa Arena.

Ordua: 18:00etan.

ATC TORREALDAY
aholkulari kontsultariak
Fiskala, Laborala eta Kontablea

BILBO Telesforo Aranzadi, 3 - 4. Tel.: 94 421 19 79 - Faxe: 94 421 61 52	ERMUA Goienkale, 9 - behea Tel.: 943 17 44 35 - Faxe: 943 17 28 82
DURANGO Fray Juan de Zumarraga, 4 - 1. C Tel.: 94 681 26 30 - Faxe: 94 681 27 62	LEKEITIO Santa Catalina, 1 - A Tel.: 94 684 26 75 - Faxe: 94 684 26 75
ONDARROA Artibay, 18 Tel.: 94 683 29 75 - Faxe: 94 683 29 75	MUNGIA Beheko kale, 12 - 1. Tel.: 94 674 45 75 - Faxe: 94 615 54 63
PORTUGALETE Abaro etorbidea, 13 - solairuartea Tel.: 94 483 78 98 - Faxe: 94 483 71 13	BERMEO Askatasun bidea, 16 - 1. Tel.: 94 688 46 08 - Faxe: 94 688 46 12

GERNIKA: Carlos Gangoiti, 28 - behea - Tel.: 902 29 29 29 - Faxe: 94 625 80 07
AMOREBIETA-ETXANO: Herriko plaza, 4 - 1. - Tel.: 94 673 29 06 - Faxe: 94 673 23 58

LEONARDO AZPIRI s/d
SANEAMENDU ETA ERAIKUNTZARAKO MATERIALA

Roca

EIBAR Matsaria Pol. - 1. Pab. 125 Kutxa ☎: 943 203 512 943 200 606 Faxe: 943 200 636	ERAKUSKETA EIBAR CALBETON, 23 ☎: 943 120 791	AMOREBIETA Biltegi Erregulatuak eta Erakusketa: Ixer Kalea, 2 ☎: 94 673 10 16 Faxe: 94 673 37 54
------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-----------------------------------------------------------	---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

ONKETAKO KONPONKETA
REPARACION DE CALZADO

Elai

Zezilia Gallartzagaitia, 3
Tf.: 94 673 32 19
48340 ZORNOTZA